


Lana gal dezaketela uste dute EBko 25 urtera arteko hamar langiletik lauk


Europako Batzordeak [Employment and Social Policy](#) izeneko txostenean argitaratu dituen datuen arabera, Europar Batasuneko 15 eta 24 urte bitarteko hamar langiletik lauk (%39) diote kezkatuta daudela krisialdi-ekonomikoa dela-eta lana gal dezaketelako.

Kezka hori handixeagoa da langileria osoarena baino (%35).




Hori hala gertatuko balitz, alegia, kaleratuko balituzte, 25 urtera arteko langileen %47 seguru daude hurrengo sei hiletan lana aurkituko luketela; %27k, ordea, kontrakoa deritzote.

Egungo lana galduz gero, beste bat aurkitzeko aukeretan hein handiagoan sinesten dute gazteek, langileria osoak baino (%47 eta %41, hurrenez hurren).



Oro har, EBko gazteen iritziak, bi alderdik dute garrantzi gehien lana errazago aurkitzeko garaian: kualifikazio-mailak (%58k aipatua) eta lan-esperientziak (%49k). Gazteek gainerakoek baino neurri handiagoan aipatzen dute hizkuntzak ezagutzea (%25ek eta %17k, hurrenez hurren).



Estekak: